

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera ekoizpena izango da, gure produktuaren diseinua eta fabrikazioa izango da garrantzitsuena. Hala ere, gure aplikazioaren mantenu zerbitzua eta bezeroenganako harremanak garrantzitsuak dira ere. Horrekin batera, bezeroei sortzen zaien arazoak konpotzea.

Gainera, lau bazkide geranez bakoitzak funtsezko ardura bat izango du, eta honako hauek izango dira; Aiorak, kontabilitatea eta administrazio lanak; Kevin komertziala, hozkailu enpresak bisitatuko ditu eta atzerriko enprekin harremanetan jarriko da (hizkuntza asko hitzegiten dituelako), gainera harremanetarako pertsona egokia da; Iraiak gure bezeroek egiten gaituzten deiak eta mezuak erantzungo dituen pertsona izango da, hauen kexak eta zalantzak entzuteko hobekien prestatua dagoena delako; eta azkenik, Rakelek Kevin bezala komertziala, baina bere kasuan bertako enprekin jarriko da harremanetan, gainera bera izango denez aplikazioaren ezagutzari buruz informazio gehiena izango duen pertsona berak kontrolatuko du aplikazioa, bertan arazoren bat baldin badago bereala zuzentzeko.



Ekoizpenari dagokionez; patentearen erabilera hozkailu enpresa ekoizle bati saldu ondoren, beraiek produktua ekoiztuko dute, beren banaketa kanalak erabiliz salduz, baina aldi berean guk baita ere gure banaleta kanalak erabiliko ditugu, esan dugun bezala kamioien bidez.

Arazoak, gure beste motatako jarduerak izango dira, produktu guztientan noiz behinka arazoak sortzen direlako eta hauek ekiditzeko prest egongo gera. Alde batetik; hozkailuetan sortu daitezken arazoak daude, haien artean; matxurak piezetan, ala nola gure kamara, jarritako pisuan etabar. Arazo honen konpontzailea, hozkailu enpresen zerbitzu teknikoak arduratuko dira, baina hori ez du esan nahi guk ez dugula bertan laguntzarik emango. Bestalde, aplikazioan sortu daitezken arazoak izan daitezke; eta hauek konpontzeko Rakel egongo da, esan bezala, bera baita informatikari buruz ezagutza gehien dituen pertsona.

